

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
3	277	24	490
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
3.010	74	7.486	142
positibo guztira*	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta
*Hernanin 55, Astigarragan 20		Sendatuak: EAE 14.718, Nafar. 3.070	

Interneten eta ordenagailuan hobeto eta seguruago aritzeko, hiru ikastaro aste honetan

Saio bana antolatu dute gaur, KZguneak denentzat eta Hernaniko Udalak nerabeentzat, interneten eta teknologia berrietan trebatzeko.

URUMEA TEKNOLOGIA

Konfinamendu garaiko ezaugarrietako bat izaten ari da, ordenagailuen, teknologia berrien eta internetaren erabilera, izan ikasketetarako, lanerako edota aisialdirako. Eta horietan hobeto eta seguruago aritzeko, hiru ikastaro antolatu dituzte aste honetarako.

Batetik, Hernaniko Udalak,

nerabeentzako ikastaroa antolatu du, bi saiotan: gaur eta etzi. Online izango da, TaPuntuko Arkaitz Sukuntza Alkortaren eskutik, 16:00etatik 18:00etara: *Ordenagailua hobeto erabiltzeko gakoak*. 12 eta 17 urte bitarteko nerabeentzat da, eta aurrez eman behar zen izena, helbide honetan: labur.eus/Zgv6I.

Helburua da, ordenagailua ikasleentzako eguneroko tresna

bilakatu den honetan, horien erabilera trebatzea.

KZgunean, ikastaro bana gaur eta etzi

Itxita daude, osasun alarma egoera tarteko, Hernaniko eta Astigarragako KZguneak ere. Eta beraz, etenda daude bertan eskaintzen dituzten ikastaroak zein dinamizatzailearen bisitak, teknologia berrietan eta interneten trebatzeko.

Baina horren partez, ikastaro eta hitzaldiak internet bidez eskaintzea erabaki du KZguneak, eta hilabete osorako pro-

grama osatu du: astearte eta ostegunero izango dira saioak.

Eta aste honetan, segurtasuna izango dute hizpide. Zehazki, gaurkoan, *Heziketa eta segurtasuna interneten* izeneko hitzaldia eskainiko dute, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, gaztelaniaz. Youtuben emango dute, KZguneaTIC kanalean. Hauxe da helbide zuzena: labur.eus/yr5nD.

«Gailu mugikorrek eta bereziki *smartphoneak*, komunikaziorako funtsezko tresna dira nerabeentzat. Beraz, hartu aurrea, arriskuak zein diren ezagututa, eta saihestu disgustuak», aurre-

ratu dute.

Internetekin eta segurtasunarekin lotutakoa izango da etziko saioa ere; baina oraingoan, gailu mugikorrei buruz beharrez, ordenagailuei buruz ariko dira bereziki: *Zure ordenagailua birus eta bestelako mehatxuetatik babestua*. Gaztelaniaz izango da hori ere, baina goizez eskainiko dute, 11:00etatik 13:00etara.

Gaurkoa bezala, Youtubeko KZguneaTIC kanalean izango da jarraitzeko aukera, eta honetarako ere, eman dute zuzenean iris-tereko helbidea: labur.eus/hyia5. K

Bi errealitate oso ezberdin izango dira Urumea bailarako herrietan, deseskalatzearen aurreneko fasean

Gipuzkoan, ondoz ondoko herrietara pasa daiteke kirola egitera, baina Nafarroan ez. Aldiz, nafarrek senide eta lagunak bisitatu ditzakete etxean, eta gipuzkoarrek ezingo dute etxeetan elkartu, ez bada adineko norbait bisitatzeko.

URUMEA DESESKALATZEA

Orain arte antzeko egoeran izan badira Urumea bailarako herriak, azotik arau ezberdinei erreparatu beharko diete, Benta Berrik markatzen duen mugaren alde batekoek eta bestekoek. Izan ere, Gipuzkoa eta Nafarroa, biak aurreneko fasera igaro diren arren, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak hainbat salbuespen eta berezitasun ezarri dituzte, alde bateko eta besteko errealitateak ezberdindu dituztenak.

Senide eta lagunekin elkartzeari buruzkoa da horietako bat. Goizuetan eta Aranon, posible da senide eta lagunekin elkartzea, etxean zein kanpoan, Nafarroako edozein txokotan, gehienez ere 10 laguneko taldeetan. Bisitatu ezingo dituztenak,

dira adinekoak eta arrisku taldeetakoak. Aldiz, Astigarragan, Hernanin eta Erefiotzun, adineko senideak edo laguntza behar dutenak soilik bisitatu daitezke; baina ez dago baimenduta gainerako senide eta lagunekin etxean elkartzea, eta ezta kafean, elkarteetan edo lokaletan ere. Bilera horiek, baina, tabernetako terrazetan egin ahal izango dira, norberaren herrian, edo mugakide diren herrietan.

Terrazetara joateko, gainera, ez da ordutegirik errespetatu beharko: gaueko 23:00ak arte egon daitezke zabalik, eta nahi denean joan daiteke bertara.

Denden kasuan ere, posible da erosketak egitera ondoz ondoko herri batera joatea Gipuzkoan, baina horrelakoak saihestea gomendatu du Eusko Jaurlaritzak, ahal den neurrian.



Taberna batzuetako terrazak zabaldu zituzten atzo, eguraldiak ez lagundu arren.

Dendak ohiko ordutegian egon daitezke zabalik, Gipuzkoan zein Nafarroan, baina %30eko aforoa izango dute gehienez, bi metroko tartek errespetatuz; eta higiene neurriak hartu behar dituzte. Terrazetan kasuan bezala, edozein unetan joan ahal izango da dendetara ere, eta ez da alde-

aurretik zitarik eskatu beharko, zero fasean bezala.

Kirola egin eta paseatzeko, eremu zabalagoa Gipuzkoan

Kirola egin eta paseatzeari dagokionez ere, biek ala biek mugatu dute mugikortasuna, eta ezingo da probintzia osoan ba-

rrena mugitu. Gipuzkoaren kasuan, norberaren herrian eta ondoz ondokoetan egin daitezke kirola edo paseatu, betiere probintziatik atera gabe. Hernanin eta Erefiotzuarrek joan daitezke Astigarraga, Urnieta, Lasarte-Oria, Donostia eta Errenterriara; eta astigarrak Hernani, Donostia eta Errenterriara.

Hori bai, ezarritako ordutegiaren barruan egin beharko dute kirola, edo paseatu: 14 eta 70 urte artekoek 06:00-10:00 eta 20:00-23:00 tartean; 70 urtetik gorakoek 10:00-12:00 eta 19:00-20:00 tartean; eta 14 urtetik beharagoek 12:00-19:00 tartean. Paseatzeko, kilometro bateko muga ezabatu da. Edonola ere, norberaren herritik ateratzea saihesteko gomendioa luzatu du Eusko Jaurlaritzak, ahal den neurrian.

Nafarroan, aldiz, ezingo da norberaren udalerritik atera, ez paseatzeko eta ez kirola egiteko.

Nafarren kasuan baimenduta dagoena, da bigarren etxebizitzara joatea, betiere Nafarroan baldin badago. Gipuzkoan, ezin da halakorik egin. K

**GAUR irekiko ditugu ateak**
Etxera eramateko janaria prest izango dugu
Urbieta Kalea, 15 · 20120 Hernani
T. 943 55 26 07 · karrerokafetegia@gmail.com

**Catalana Occidente**
Aseguruak
BAUTISTA BIURRARENA ETXEGOIEN
Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

**gse**
Asesoreak
Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua
Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

**ITXASPE**
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

GAUR Giro lasaia izango dugu goizean, baina behe-laino ugari agertuko dira zeruan, eta goibel egongo da. Baliteke euri pixka bat egitea ere. Arratsaldean, bero-lainoak osatuko dira, eta ekaizak jo dezake iluntzean. **Min.11° / Max.16°**

BIHAR Egunaren hasieran giro tristea eta euritsua izango dugu bihar. Eurria sari eta ugari egongo du, eta ekaizak ere jo dezake. Arratsaldean, ordea, atertzera egongo du, eta ostarreak ere zabaldu daitezke. **Min.11° / Max.16°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroea Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Metro karratuko 95 litro jaso ondoren, hustutze lanak Añarbek

Igande osoan eta astelehenaren hasieran litro asko pilatu zituen urtegiak, %94,48 betetzera. Urumea ibaiak behera egitean hasi ziren hustutzen.



Igandeko prezipitazioekin ere, ez du gorakada haundirik izan Urumea ibaiak.

URUMEA AÑARBE

Euria gogotik egin zuen igandean, egun osoan zehar, Urumea bailaran; eta erruz bota zuen, zenbait momentutan. Datuetara ekarri zuen hori atzo, Añarbeko urtegiak, eta igande osoa eta asteleheneko aurreneko bederatzir orduak kontabilizatuta, 95,1 litro jaso zituen metro karratuko. Igandeko 24 orduetan, horietatik 86,9 litro izan ziren, metro karratuko.

Hori horrela, bere edukiera osoaren %94,48 betetzera iritsi zen Añarbeko urtegia; baina presa itxita mantendu zuen, atzo goizera arte, «Añarbe ibaitik zetorren emari gero eta haundiagoa urtegian eutsiz, eta Urumea ibaira ur bolumen haundiak iristea saihestuz».

Atzo goizeko 09:15etan hasi zituzten hustutze lanak, «euria-gatik abisu horia amaituta, eta Urumea ibaiaren maila jaitsi zela egiaztatuta», azaldu zuten. Hustutze hori badaezpada izan da, urtegian babes edukiera «nahikoa berreskuratu arte».

Zehazki, segunduko 17,5 metro kubiko ur hustu zituzten; gehiena, urtegiaren beheko hustubideetatik (15 metro kubiko segunduko). «Urumea ibaiak posible» egin bitartean aritu dira hustutze lanetan, eta aurreratu zuten, «egoeraren bilakaeraren arabera hustutze emariak gora edo behera» egin zezakeela.

Horretarako, nabarmendu dute Añarbeko zerbitzu teknikoen «prezipitazio gertakarien bilakaeran» daukatela jarrita «arreta guztia», eta garrantziko edozein nobedade izanez gero, emango dutela horren berri.

Prezipitazioek nabarmen behera, atzokoan

Igandeko euriteen ondoren, urtegiak bezala, gora egin zuen Urumea ibaiaren emariak ere. Baina atzo, nabarmen egin zuten behera prezipitazioek, eta urtegiak hustutze lanak eginda

ere, bere onera etorri zen ibaiak.

Goizuetan, emaririk haundiena igandetik astelehenerako gaurdian izan zuen Urumeak, 0,89 metrokoa, eta hortik aurrera behera egin zuen, 10:30ak aldera gorakada txiki bat izan zuen arren. Atzo arratsaldean, 0,7 metrokoa zen emaria.

Ereñotzuan, berriz, goizaldeko 01:00ak aldera izan zuen emari gehien: 1,076 metro. Behera egin zuen gero, eta beste gorakada bat izan zuen 09:00etatik 10:20etara, 1,072 metro arte. Arratsalderako, 1,032 metrora jaitsi zen berriz.

Urtegian, igandean metro karratuko jasotako 86,9 litro horiek kontrastean, atzo 15,5 litro besterik ez ziren jaso metro karratuko, arratsaldeko 20:00ak arte. Gehienak, gainera, goizeko aurreneko orduetan izan ziren. Horrek ahalbidetu zuen, hustutze lanekin batera, urtegia bere edukieraren %93,9ra jaistea. **K**

Aste osoko plana berriz, Hernaniko kiroldegiak

Atzo jarri zituzten aurreneko bideoak Youtuben: beroketa, GAP, 'full body', tonifikazio zirkuitua eta koreografia.

HERNANI KIROLDEGIA

Aurreko asteotan bezala, honetan ere prestatu du aste osorako plana, Hernaniko kiroldegiak. Horrela, egunero jarriko dituzte bideoak, Hernaniko Udalen Youtubeko kanalean, adin guztietako herritarrek ariketa egin dezaten etxean.

Atzokoak ikusgai daude bertan, eta hiru bideoekin eman zioten hasiera asteari. Horietan, honakoak bildu dituzte: beroketa, GAP, full body, tonifikazio zirkuitua, eta hirugarren adinekoentzako koreografia.

Gaurkoan, berriz, beste lau saiorekin emango diote segida: pilatesa, koreografia erritmo latinoarekin, tabata, eta haurrentzako jolasa.

Horrela ariko dira, egunero bideo berriak jartzen, igandera bitarte. Aste osorako plana ikusgai dago www.kronika.eus web orrian, edota Hernani Kirolaren Twitterrean. **K**

Erizainei babesa gaur, pankarta batekin

ASTIGARRAGA-HERNANI GAZTELEKUA

Konfinamenduko ekintzekin jarraituz, gaurkoan Erizaintzaren Nazioarteko Eguna ospatuko dute Hernaniko Gaztelekukoek, eta babesa erakusteko pankarta egingo diete. Horretarako, goizean zehar gazteek instagramean bidez helarazi beharko diote Gaztelekuarri, zein mezu bidali nahi dizkieten erizainei. Eta horiekin, Gaztelekuko hezitzaileek osatuko dute pankarta arratsaldean, gero sare sozialetan zabalduko dutena. Bestalde, gaurtik igandera bitartean, meme lehiaketa jarriko dute martxan, 12-17 urteko gazteentzat, homofobia eta transfobiaren aurka. Testurik gabeko irudi bat jarriko du Gaztelekukoak, eta testua osatu beharko dute gazteek. Saria ere izango da: *Rebeca y Julieta* liburua. Astigarragan, berriz, *Zeinek asmatu gehien* jolasean ariko dira, musika taldeak gai hartuta.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

JASOTA BEZALA

gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Katalunia independente batek, zer?

Pedro Sanchez gobernu burura iritsi eta Espainiako presidente gisa egin zuen lehenengo nazioarteko bisita, Portugalera izan zen. Bertan omen zegoen ezkerreko gobernu ez liberal eta eraginkorraren erudia. Erabaki ausarta zalantzarik gabe, baina, zer ikasi zuen presidente espainiarrak bisita hartatik?

Portugal da Koronabirus osasun-krisia arrakasta handiz kudeatu duen munduko herrietako bat (El Paisetik hartuta). Milioi biztanleko hilgarritasun tasa 77 pertsonakoa da. Berehala hartu zituen konfinamendu neurriak, funtsezko jarduerak ez ziren eremuak geldiarazi zituen eta lehenengo momentutik itxi zuen Es-

painiarekiko muga (ez du beste inorekin mugarik). Espainian, ordea, hilgarritasun tasa milioi pertsonako 1.000 hildakora iristen ari da (El Españoletik hartuta 2020/04/20). Espainiak mugak itxi zizkien alboko estatuei haiek berari itxi ondoren. Eskandalagarria.

Hala ere, Espainian ez dute horiek denek sortu eskandalua, baizik eta, Kataluniako enpresarien buruak «Katalunia independentea izanik osasun-krisia hobeto kudeatuko lukeela» esateak. «España va bien» esan zuen besteak.

Portugal 1640an independizatu zen Espainiatik; Katalunian, urte berean, Els Segadors matxi-

nada hasia zen; Espainia 1808an independizatu zen Frantziatik. Horien aurretik eta atzetik milaka kontu daitezke konkista, menderatze eta independentzia prozesuak munduan. Ez dago esaterik independizatu zirenek hobeto edo okerrago kudeatzen ari direnik Koronabirus osasun-krisi hau, Espainia bera horren lekuko, baina Espainiak egin ezin duena da beste ukatu beretzat hartu duena. Alegia, ezin dio ukatu komunitate nazional bati independentzia, krisia eurek baino hobeto kudeatu dezakeela agerian gelditzeko lotsagatik.

Beñi Agirre Oartzabal Idazle eta historialaria

biokbi optika

Alejandra Alcibar
Optiko Optometrista 12.244 zenbakia

Antziola 14
Telf: 943 33 68 86

GURE MERKATARITZA-JARDUERARI EHINGO DIOGU MAIATZAREN 11N, ASTELEHENA, COVID-19REN AURKAKO SEGURITASUN-NEURRI GUZTIEKIN

Segurtasun handiagoa izateko, gure bezeroei eskatzen diegu aldeztu aurretik hitzordua hartzeko.

Optikara joan behar baduzu graduazioa eguneratzeko, lentillak egokitzeko edo begietan nabaritzen duzun beste edozein eragozpen begiratzeko, maskarilla erabiltzea gomendatzen dugu. Azterketa egin ondoren, tresna guztiak desinfektatuko ditugu.

Establezimenduaren barruan, OMEk gomendatutako arauak beteko ditugu: segurtasun-distantzia, eskuak garbitzea, eta eskularru, maskara eta gel hidroalkoholikoa erabiltzea eta, ahal bada, txartelarekin ordaintzeko.

Agur bero bat. Espero dugu laster normaltasunera itzultzea.